

MUNGIARRA

URRIA OCTUBRE 2024 ~ 73. zk.



Agintaldi Planeko %75 beteta edo abian dago

Match Mungia: tokiko
enpresen arteko
konexioa errazteko

Renovado el alumbrado
público: mejorando la
eficiencia energética

Ikastetxeetako
ikasleentzako "Mungia
Bardintasunerako
bidean" programea
martxan da



MUNGIA
UDALA


www.mungia.eus



Legeldiaren lehen urteko balantze baikorra: Agintaldi Planeko % 75 beteta edo abian dago

Legegintzaldiko lehen urtea igarota, Udalak aurrerapen nabarmena egin dau 2023-2027 Agintaldi Planaren gauzatzean. Aurreikusitako 83 jardueretatik % 75, hau da, eurotatik 62 eginda edo martxan dagoz. Horretara erakusten da Mungiarako planteatu helburu estrategikoakazko konpromisoa. Legegintzaldiko planaren helburua da aukera gehiago eskainiko dauzan udalerria sortzea,

kohesinonatu eta berdeagoa; beti bere, zentzuzko garapen-eredu baten barruan, personak erdiunean iminita eta ingurumenagazko errespetua erakutsita. Eta hori guztia, aldi berean, gizarte, hirigintza eta ingurumen-politikei eutsita, eta bide-garbiketa eta lorazaintzaren moduko zerbitzuen beharrezanean erantzunda.



PLAN DE MANDATO: 83 ACTUACIONES

- FINALIZADAS: 32 ACTUACIONES 39 %
- EN EJECUCIÓN: 30 ACTUACIONES 36 %
- NO INICIADAS: 21 ACTUACIONES 25 %

☞ De las 83 actividades previstas en el Plan de Mandato el 75 % (62 de ellas) están realizadas o en marcha, reflejan así el compromiso con los objetivos estratégicos planteados para Mungia.

Udalak euskeraren erabilera normalizatzearen aldeko apustua berretsi dau, 2024-2027 aldirako plan estrategiko barria onartuta

MUNGIKO UDALAN
EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN
ESTRATEGIKOA
2024-2027



Udalak datozen lau urteetarako Mungiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatze Plan Estrategiko barria onartu dau, 2024tik 2027ra bitartean indarrean egongo dana.

Sano garrantzitsua da euskerea Udalaren arlo guztietan komunikazio-hizkuntza eta barruko kudeaketa-hizkuntza moduan sendotu daiten. Planaren helburua euskerea Udaleko lan-hizkuntza nagusia izatea da, horren erabilera eguneroko jardura guztietan bermatzeko eta administrazioan daukan presentzia indartzeko, beharginen prestakuntzatik eta dokumentazioaren ekoizpenetik hasi eta baliabide informatikoetaraino.

☞ *El Ayuntamiento de Mungia reitera su apuesta por la normalización del uso del euskera. Aprobado el nuevo plan estratégico 2024-2027*

Alaitz Erkoreka, nueva presidenta de la Asociación Cittaslow



Alaitz Erkoreka Baraiazarra, alcaldesa de Mungia, asumió la presidencia de la Asociación Cittaslow el pasado mes de febrero. La elección de Mungia y de su alcaldesa para liderar la Asociación subraya la notable contribución de la localidad al movimiento Cittaslow, destacando su enfoque en el desarrollo sostenible, la preservación del patrimonio cultural y la promoción del bienestar de sus habitantes.



☞ *Mugimendu honen oinarrian prisa barik bizitzea berreskuratzea dago, bizitzaren plazer txikerrek eta dibersidadeak dakarskuezan aberastasunez gozatzea. Gure bizimodua osasuntsuagoa eta erosoagoa egiten daben lehengo tradizio eta ohiturak ekarri gura dauz gaurkora filosofia honek.*

Aurton bere Mungiak Gustoko Azokan hartu dau parte



☞ *Un año más, Mungia ha participado en el BEC en la Feria Gustoko. Las personas que se acercaron al stand pudieron disfrutar de nuestros productos: alubia, chorizo, morcilla de verdura, harina de maíz y pan de masa madre.*

Aurten bere, Mungiak BECen egindako Gustoko Azokan parte hartu dau. Gure herriko erakustokira parajetu ziranek bertoko produktuez gozau ahal izan eben: indabak, txorizoa, odolostea, artouruna (txakinartoa) eta ore amaz egindako ogia, besteak beste.



2025eko Mungiharro egutegirako argazki lehiaketeta hasita dago



El tema del concurso fotográfico para ilustrar el calendario Mungiharro 2025 es “Mungia Herri Bizia - Un pueblo vivo”. Destacar que un año más ha habido una alta participación.

2025eko Mungiharro egutegirako argazki lehiaketaren gaia “Mungia Herri Bizia” da.

Egutegian, Mungia bizitasuna emoten deusien irudiak izango dira nagusi. Aitatzekoa da aurten bere partehartze handia egon dala. Laster epaimahaia batuko da azaleko irudia aukeratzeko eta egutegi barrurako argazki onenak herri aukeraketara pasetako.

Ya están en marcha los Presupuestos Participativos de 2025

Los Presupuestos Participativos de 2025 ya están en marcha. En la primera fase, las y los mungiarros han podido proponer las actuaciones que consideran prioritarias para la localidad. Cabe recordar que ya son 14 los proyectos ejecutados por parte del Ayuntamiento y que han sido propuestos por la ciudadanía desde la puesta en marcha de esta iniciativa en 2018. En esa línea, ya se está trabajando para materializar las propuestas recogidas en la edición anterior: instalación y reparación de luminarias, realización de tratamiento antideslizante en zonas del núcleo urbano, instalación de nuevo mobiliario urbano, instalación de bancos cubiertos, peatonalización del camino Aita Elorriaga a Gamiz bidea, y dos nuevas zonas de esparcimiento canino en Atxurizubi kalea y Gamiz bidea.



Aurreko edizinioan boto gehien jaso dabezan sei proiektuak: argiak imintea eta konpontzea, uriguneko leku batzuetan laban ez egiteko tratamendua egitea, urialtzari barriak eta estaldutako jesarlekuak imintea, Aita Elorriagaren eta Gamiz bidearen arteko bidea oinezkoentzat egitea eta Atxurizubi kalean nahiz Gamiz bidean txakurrentzako gune barri bi sortzea. Zabaldu da 2025eko aurrekontuetarako proposamenak batzeko lehen fasea.

Mungiarrok, jaietako kartelak aukeratu doguz



Gorabide Alkarteak aurtengo San Pedro jaiak iragarzteko aurkeztu dauan kartela izan da irabazlea.



Gaztetxuen lehiaketan, oster, Joseba Urazurrutia izan da irabazlea.

Mungiako ikasleak udalagaz batzartu dira Udal Foroaren bidez, herria hobetu gurean antolatu dabezan ekintzak aurkezteko asmotan



Gure udalerriko 2030erako Eskola Agendan, Mungiako Ikastetxeetako 30 bat ikaslek Udal agintariakaz batzartu dira udaletxean, eraldaketarako egindako lana baloratu ostean, ateratako ondorioak aurkezteko.

Alumnado de los centros escolares de Mungia se reunió con el Ayuntamiento para presentar las acciones transformadoras que ha organizado para mejorar nuestro municipio a través de Udal Foroa.

“Match Mungia”



El Ayuntamiento de Mungia, entre empresas. La primera a través de Mungialdeko Behargintza, ha puesto en marcha el proyecto “Match Mungia” facilitando la conexión de doce empresas de la comarca.

Lehenengo edizinoa Arteche Taldeak Mungian daukan egoitza nagusian garatu da, eta eskualdeko 12 enpresak hartu dabe parte bertan.


Hona hemen helburuak: tokian tokiko enpresen arteko alkarreragina sustatzea, informazioa zein jakintzea trukatzeko, merkataritzako zeharkako hartu-emonak bultzatzea eta enpresetan bertan alkarlanaren aldeko sare nahiz giro egokia sortzea.

Mungiako Udalak 11 lanbako kontratauko dauz 2024ko Tokiko Enplegu Planaren barruan



2024ko Tokiko Enplegu Planaren bidez, Mungiako Udalak hamaika kontratazino egingo dauz (bederatzi, udalak berak; eta bi, Mungialdeko Behargintzak) 2024ko bigarren sei hilekoan honako arloetan: hirigintza, gizarte-arloa, herritarrentzako arreta, udal-kudeaketaren hobekuntza, enplegu-arloa, komunikazioa eta prospekzioa.

El Ayuntamiento de Mungia, a través de su Plan de Empleo Local 2024, realizará once contrataciones en el 2º semestre de 2024.



👉 *Mungialdeko Behargintza pone en marcha una nueva oferta de cursos de formación.*

[illegible]

Tel. 94 615 62 44 • www.mungialdeko-behargintza.com

Mungia Indartzen



☞ **Bagilean, Mungiako Udalak Mungibonoa programea jarri dau abian arrakasta handiz**

Udalak danatara 79.000 € bideratu dauz Mungibonoko deialdira, tokiko negozio txikerren aldeko apustua egin gurean. Holan, 7.900 bonu emon dira.

Mungibonoa kanpainan 84 saltegit hartu dabe parte guztira, eta 94na bonu esleitu jakez.

☞ *El Ayuntamiento de Mungia ha destinado 79.000 € para esta exitosa iniciativa, en la que han participado 84 establecimientos.*



☞ **Harrera bikaina egin jako “Udagoiengan, Musikaz blai” ekimenari**

El Ayuntamiento, en colaboración con la Asociación de Comerciantes y Hosteleros, ha puesto en marcha “Udagoiengan, Musikaz Blai”, para dinamizar la hostelería mungiarra con actuaciones musicales en la calle, la tarde-noche de los viernes hasta el 25 de octubre. El ayuntamiento ha invertido 21.000 euros a través del plan “Mungia Indartzen”. La iniciativa está teniendo una muy buena acogida.



☞ *Musika talde desbardinak herriko kaleak dinamizatu dabez bariku ilundeetan irailaren 20tik urriaren 25era.*

Bardintasuna lantzen!

Martiaren 8an, Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan, era guztietako jarduerak izan ziran.



Urtero lez, gure andra baserritarrei lora-eskaintza egin jaken egiten dabene lanagaitik esker-ona erakusteko.



“Erroak” izeneko ikuskizuna; musika, dantza eta olerkiak uztartuta.



LGTBIQ+ Giza Taldearen Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazinoarteko Egunean, Mungiako Udalak ikurra diran koloreen bidez margotu dau Legarda eta Mungiako institutuaren gu-neko jesarleku bat.

8M en Mungia: reconocimiento a nuestras baserritarras, manifestación y concentración, espectáculos y teatro para reconocer el papel igualitario de las mujeres, scape room para jóvenes...



Mungiako emakumeen alkarteek eta mugimendu feministak konzentrazinorako deia egin eben manifestaldiaren ostean; eta Udalak parte hartu eban bertan.



Andina Pereira de Britoren erailketaren 10. urteurrenean, Matxin plazan indarkeria matxistak jotako emakume guztien eta euren familien oroipenean eta omenez gogoetarako txokoa sortu zan.



Gazteakaz bardintasuna era ludikoan lantzeko, “Lilith kodea” izeneko ihes gela antolatu zan.

“Bendeja saltzaileak Mungiako plazan” ikerketea aurkeztu da

Mungiako Andren Historia Barriro Irakurteko” bigarren azterlana aurkeztu da; lanaren gaia hau: “Mungiako bendeja saltzaileak Mungiako plazan”; eta egileak: Garazi Albizua eta Hegoa Álvarez. Lanaren 4 podcast zabaltu dira, eta eszena ezbardinak antzeztu ziren, zuzeneko musikeagaz Torrebillelan.



Se han presentado los resultados del segundo estudio para Releer la Historia de las Mujeres de Mungia, centrado en las vendederas en la plaza de Mungia, que se ha plasmado en varios podcasts disponibles en www.mungia.eus. Además, se representaron varias escenas con música en directo en Torrebillela.

Indarkeria matxista bako jaiak

Aurten bere, herriko emakumeen alkarteakaz, San Pedro jaietako txosnen batzordeagaz eta mugimendu feministagaz alkarlanean, jaietan eraso sexisten aurkako protokoloa eguneratu eta adostu zan, formakuntza egin eta ostean. Aurtengo jaietan ez da erasorik gertatu; beraz, balorazioa oso ona da.

Las fiestas han transcurrido sin incidencias significativas en cuanto a agresiones sexistas.

Mungia aurrendaria jaietako eraso sexualen prebentzinoan



Emakundek antolatutako jardunaldi batean, Mungiako alkateak jaietan eraso sexualen prebentzinoarako egindako alkarlana eta protokoloaren esperientzia azaldu eban. Izan bere, gure herria aitzindaria izan da holako protokoloak abian jarteko orduan.

Apoyo y formación a asociaciones deportivas para actuar ante agresiones y acoso

El Área de Igualdad está trabajando con AMPAS y clubes deportivos con el fin de analizar su realidad y ofrecerles formación

de forma que puedan contar con una guía-protocolo que les sirva para prevenir y actuar ante agresiones y acoso sexual.



‘Mungia bardintasunerako bidean’ programa jarriko da abian

Para construir una sociedad más justa y libre de violencia de género, el Área de Igualdad va a poner en marcha el programa “Mungia Bardintasunerako bidean” dirigido a 1470 alumnas y alumnos de 5º y 6º de Primaria y de 1º a 4º de ESO de todos los centros escolares del municipio, que se iniciará en enero.

Udalak “Mungia Bardintasunerako bidean” programea jarriko dau abian, udalerriko ikastetxe guztietan, ikasleak, irakasle-taldeak eta familiak genero-indarkeriarik bako gizarte bidezkoago bat eraikitzearen garrantziaz hezi eta sentibilizatzeko. Ekimenak hezkuntza komunitatearen babesa dauko eta urtarirlean hasiko da. 1470 ikaslek hartuko dabe parte, hain zuzen bere, Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailetako eta DBH osoko mailetako ikasleek.

2024-2025erako Guraso Eskolea

Guraso Eskolearen zortzigarren edizinoari ekin jako. Familiek euren hezkuntza zereginetan daukiezan zalantzei zein kezkei emongo deusek erantzuna. Hiru modulu egongo dira seme-alaben edadearen arabera: 3-6 urte, 7-12 urte eta 12-16 urte. Modulu bakotzak 12 saio izango dauz, blokeetan banatuta.

Izen-emotea doakoa da eta zemendiaren 2ra arte egin ahal izango da.

Informazioa jasoteko & izena emateko:
gizartekintza@mungia.eus • Tel. 94.655.87.14



2024-2025eko ikastaroak Kiroldegian!



INFO+

Tel. 94 674 34 12
kiroldegia@mungia.eus

Accede a la información de todos los cursos (horarios, reservas,...) escaneando el QR ¡Te esperamos en el Polideportivo!



Estudio de soledades no deseadas



En los próximos meses, se realizará un estudio con el fin de conocer de mejor manera la realidad de las vecinas y vecinos de Mungia que se encuentran en situación de soledad no deseada. Una vez realizado el análisis, se pretenden poner en marcha diversas acciones que sirvan para paliar dichas situaciones y mejorar así la calidad de vida de estas personas.

☞ *Mungiak azterlana egingo dau, gura bako bakartadean dagozan biztanleen errealidadea zeindan hobeto jakiteko. Azterlana egindakoan, egoera horreei aurre egiteko moduko ekintzak bideratuko dira.*

“Oporrak Bakean” programea



Aurton bere, “Oporrak Bakean” programearen bidez, Saharako kanpalekuetatik etorritako 200 umek udea igaro dabe Euskal Herrian. Mungialdera ume bi etorri dira oingoan.

Garagarriaren 23an, Larrabetzuko aterpetxean egon diran neska-mutilak Mungian hartu genduzan eta egun ederra igaro eben Mungiako igerilekuetan.

Aurten bere udalak “Jaitxori” zerbitzua eskaini dau



2023ko udan egin zan proba pilotuaren arrakasta ikusita, aurten Udalak ‘Jaitxori’ zerbitzua zabaldu egin dau eta inguruko herrietako jaietara eta Mungiako auzoetako jaietara joateko aukera emon dau. Holan, Udalak zerbitzu segurua eskaini dau gure gazteentzat. Datuak sano positiboak izan dira, 300 lagunek baino gehiagok erabili dabe Jaitxori zerbitzua.

Gazteen begiraleen prestakuntza

La Mancomunidad Mungialde ha organizado un curso de formación en materia de educación sexual abierto a la ciudadanía, pero especialmente enfocado a personas que trabajen en el ámbito educativo.

Mungialde Mankomunidadeko Adikzinoen Prebentzinorako Zerbitzuak sexu-hezkuntzaren arloko prestakuntza-ikastaroa antolatu dau herritar guztientzat, baina, batez bere, hezkuntzaren arloan behar egiten dabenentzat (begiraleak, umeakaz eta nerabeakaz lan egiten daben gizarte-eragileak...). Ikastaroa doakoa izango da, eta ordu bi eta erdiko bost saio egingo dira (12 ordu, danetera). Urriaren 30ean

eta zemendiaren 6, 13, 20 eta 27an eskainiko dira, 17:30etik 20:00etara, Mungiako Udaleko erakusketa-aretoan.

INFO+

Informazinoa jasoteko & izena emoteko:
prebentzioa@mungialde.eus
Tel.: 747.414.274.

Mungiako Udalak jolasguneak eta umeentzako parkeak hobetu eta barritu dauz



Mungiako Udalak 75.824,31 euro inbertidu dauz jolasguneak eta umeentzako parkeak barriztatzeke; eta ganera, barri bat bere jarriko da. Helburua aisialdirako gune seguruak, modernoak eta irisgarriak eskaintzea da. Hobekuntza horreek txikerrenek euren beharrianetara egokitutako gune seguru batez gozau daien egiten dira.

Lau parkeotan egin dira barrikuntzak: Berteiz, Olalde Beresia, Goietako plaza eta Usandizaga Eresgile. Ganera, ingurua errespetauko dauen ume-parke barri bat eraikiko da Lauaxeta kalean.

☞ *Mungia destina más de 75.000 euros para estas actuaciones. Las mejoras se han realizado en cuatro parques infantiles: Berteiz, Olalde Berezi, Usandizaga y Goietako plaza. Además, se instalará un nuevo parque infantil respetuoso con el entorno en Lauaxeta kalea.*

Argiteria publikoa egokitzeko lanak amaitu dira, energia-eraginkortasuna hobetzeko

Mungiako Udalak amaitu dauz kurtso honetako argiteria publikoa egokitzeko lanak. Helburua eraginkortasun energetikoa hobetzea da, herriko puntu batzuetako argiteriaren ordeztu LED argiztapena erabilten dabena sistemak jarritz. Horrek eraginkortasun energetikoa hobetzea dakar eta 21.386,48 € inguru aurrezte, eta, aldi berean, argi-kutsadura murriztea.

Bagilean, guztira 41 proiektagailu ordezkatu ziran Andra Maritik Jon XXIII. plazaraino, baita Beko kaletik eleizara eta Torrebillela parketako tartea argiztatzen dabena bere.

Garagarrilean eta abuztuan Atxuri auzoan 109 argi ordezkatu dira, Txirro bidean, 26; eta, Garraketa inguruan 51 argi aldatu dira.



☞ *Finalizados los trabajos de adecuación de alumbrado público para mejorar su eficiencia energética. El alumbrado de algunos puntos de Mungia ha sido sustituido por alumbrado led.*

El Polideportivo de Mungia arranca el curso con novedades ampliando su oferta

El horario de apertura será una hora antes del habitual. Abriendo a las 7:00 de la mañana, de lunes a viernes.

Se ha habilitado un nuevo servicio para el alquiler mensual de taquillas. Además, como novedad, el área de Deporte también propondrá una actividad diferente cada mes, para acercar la salud y el deporte a toda la ciudadanía.

☞ *Kiroldegia barrikuntzakaz hasiko dau ikasturtea, eskaintza zabalduz, Udalak osasunagaz eta ongizateagaz daukan konpromisoa indartuz.*



“Mungia garbia” guztion ardura dalako


Año 2023	MUNGIA	% en peso
Recogida en masa	4.816.600	75,13%
Envases	354.318	5,53%
Papel - Cartón	581.196	9,07%
Vidrio	392.938	6,13%
Voluminosos	129.680	2,02%
Reutilización	89.835	1,40%
Bioresiduos	45.620	0,71%
TOTAL R.D. (Residuos domésticos)	6.408.187	100%
Habitantes	17.882	17.882
Kg / hab / año	358,36	358,36

ALTZARIAK & TAMAINU HANDIKOAK

Elektrotresnak, altzariak eta tamainu handiko gauzak batzeko zerbitzu berezia eskaintzen dau Mungiako Udalak, horretarako aurretik deitu behar da telefono zenbaki honetara: 94 435 57 50, eguna, ordua eta tokia zehazteko.



Kontenedore grisera botatzen doguzan hondakinen muestreoa: datu esanguratsuak dira, zaborren bereizketa handiagoa egin geinkela adierazoten dabe eta.



GARBIGUNEA

Udal bilketa zerbitzutik kanpo dagozan hondakinak izan ezker, Garbigunera eroan behar dira.

Mungiako Garbigunea:

Plentzia bidea
(Sahiesbidearen ondoan)

• Orduategia

Astelehenetik barikura:


9.00-13.30/ 15.30-18.00

Zapatuetan: 9.00-13.30

¡Escucha activa en los barrios!



El Ayuntamiento se está reuniendo con las personas que residen en los barrios de Mungia. Así, se ha reunido con las vecinas y vecinos de Birle para informar de las obras de mejora del saneamiento y del abastecimiento de agua. También ha mantenido distintas reuniones con la ciudadanía de otros barrios, como en Garragane y Garraketa, donde ha informado del proyecto para mejorar la accesibilidad en el camino al ambulatorio.



☞ *Udala Mungiako auzoetako biztanleak batzartu da, proiektu desbardinaren barri emoteko: Birlen, saneamenduko eta ur-hornikuntzako obren ganean egin dabe berba. Garaganen eta Garraketan, barriz, ambulatoriorako bideko irisgarritasuna hobetzea euki dabe berbabide.*

Mungiako Udalak Emerando auzorako hornidura-sarea handitzeko proiektuaren lehen fasea onartu dau

☞ *El Ayuntamiento aprueba la primera fase del proyecto para la ampliación de la red de abastecimiento al barrio Emerando. La inversión será costeada íntegramente por el Consistorio y será de 1.500.614,09 euros*

Mungiako Udalak, Emerandoko goiko auzorako hornidura-sarea handitzeko proiektuaren lehen fasea onartu dau, inguruko bizilagunek edateko ura errazago eskuratu daien. Udalak 1.500.614,09 euro inbertiduko dautz proiektua egiteko.

Proiektuan aurreikusitako jarduera nagusien artean honako honeek nabarmentzen dira: ur horniduraren eta zuntz optikoaren lurpeko kanalizazioa, Markaida auzoko ponpaketa-sistematik Emerando auzoan eraiki gura dan ur-biltegitiraino. Instalazio elektrikoaren lurpeko kanalizazioa eta Ur-hornidurako lurpeko kanalizazioa, eraiki beharreko ur-biltegitik auzoko etxebizitzetaraino.



Finalizan las obras de la urbanización de Larrabizker

Las obras de la Urbanización de Larrabizker han llegado a su fin. Así, el Ayuntamiento de Mungia, tras llevar a cabo las labores de acondicionamiento de la

urbanización, ha recepcionado el terreno, que pasa a ser de titularidad municipal. Además, ya ha comenzado con la tramitación de las licencias de primera ocupación.

Comprobado el estado de la misma por representantes de todas las partes, se dan por finalizados todos los procesos en torno a la Urbanización de Larrabizker.



☞ *Larrabizker urbanizetako lanak amaitu dira. Udalak dagoaneko jaso dau lursaila, eta, beraz, udalaren titulartasuneko izango da. Hasita dago lehen okupazinoko lizentzien tramitazioa.*

Jagon daigun gure herria!



Akabuko hileotan, gizalegearen kontrako ekintza ugari kezka handia sortu dabe; kasu baterako, eremu publikoetako pintadak, hiri-altzariak apurtzea eta kableen lapurretak. Jokabideok alkarbizitzaren eta gu guztion ongizatearen kalterako izan dira.

Era horretako ekintzek gure herriaren irudia hondatzen dabe, eta, horren ganera, udal-kutxetarako kostu gehigarria bere badira. Danon erantzunbeharra da alkarregaz lan egitea, gure izaerearen erakusgarri ez diran ekintza horreek desagerrarazoteko.

☞ *Últimamente, padecemos preocupantes actos incívicos en Mungia: pintadas en espacios públicos, rotura de mobiliario urbano y sustracción de cableado. Esto afecta negativamente a la convivencia y bienestar de todas y todos, deteriorando la imagen de nuestro pueblo y aumentando el coste para las arcas municipales. Es responsabilidad de todos y todas trabajar para erradicar estas acciones.*

Mungiak Liburu Azoka arrakastatsua ospatu dau aurten bere



Mungiako Liburu Azokan hamalau erakusketarik hartu dabe parte. Aurton, “Itsasoa. Literaturea eta kantuetan” izan da gai nagusia.

Berbaldiak bere egin dira: Karmele Jaiok “Maitasun kapitala” liburu barria aurkeztu dau. Iñaki Sarriugarte Irigoienek “Jule Gabilondo idazle mungiarra eta Jel-Azia liburu galdua” berbaldia emon dau.



‘Euskera Ibiltaria’ erakusketa alkarreragilea Mungiako Izenaduba basoan



Mungiako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak “Euskera ibiltaria” erakusketa alkarreragilea antolatu dabe Landetxo Goikoa baserrian.

“Euskera ibiltaria” erakusketa alkarreragilearen abiapuntua Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) da, eta, bertan, azken urteotan egindako argitalpenak agertzen direnez, herritik jasotako euskerearen aniztasuna eta aberastasuna barriro bere herrira ekartea eta erakustea dauka helburu.

Bariku ilundeetan Foruen enparantzan ‘Erromerian’ dantzan

‘Erromerian’ abenduaren 27ra arte hileko akabuko barikuetan Mungiako Foruen enparantzan egingo dan ekimena da. Plazea bera dantza tradizionalerako alkargune moduan berreskuratu gura dauan jardueria da.

Hurrengo hitzorduak: 19:30ean
Urriak 25 • Zemendiak 29 •
Abenduak 27

☞ *Abenduaren 27ra arte hileko azken barikuetan, erromeria-taldeek eszenatokia izango da Foruen enparantzea.*



Ciclismo internacional en la XII edición del Gran Premio Mungia-Memorial Agustín Sagasti



Agustín Sagasti Memoriale Mungiako Sari Nagusiaren XII. edizinoa egin da Mungian. Nazinoarteko proba da. Estaduko txirrindulari amateurren talde onenek parte hartzen dabe. 25 taldeetako 200 txirrindulari 138 kilometroko zirkuituan.



Un año más se ha celebrado en Mungia la “XIII Edición del Memorial Agustín Sagasti-Gran Premio Mungia”. Una prueba internacional en la que han participado los mejores equipos del ciclismo amateur. 200 corredores de 25 equipos se han disputado los 138 kilómetros del circuito.

Mungiako Kirol Sarien II. edizinoa egin da




Mungiako Kirol Sarien II. edizinoa ospatu da, Olalde Aretoan. Udalak berak antolatzen dau sari-emote hau. Oingoan, herriko 15 kirol elkarte eta klubi eskertu jake herrian bertan jarduera fisikoa nahiz kirola bultzatzeko egiten daben lana.

Arrakasta Mungiako kirolarien artean!



Nuria Etxegarai conquistó en Goteborg (Suecia) el pasado mes de agosto el campeonato del mundo en la prueba de 2.000 metros obstáculos en categoría máster F50 y, además, se quedó a nueve centésimas de su récord mundial, obtenido en julio en Alcobendas, donde también logró el campeonato estatal.



Jon Lekanda: en 2023, se colgó la medalla de plata por equipos con la selección estatal de tiro olímpico en el Campeonato de Europa Junior y, este año ha quedado campeón del Mundo Junior de Trap 5 en agosto. En estos momentos, es una de las mayores promesas de su deporte.



Rakel Mateo: kirolari mungiarrak harrotasunez bete gaitu joko olinpiko batzuetan hirugarrenez parte hartuz, oraingoan 2024ko Parisekoetan. 2016an, Rion egin eban, eta 2021ean, Tokion.

“Aste Berdea 2024”



Concienciar sobre el desafío medioambiental y climático que tenemos son los objetivos de esta semana que se celebró con distintas actividades: una charla y exposición de carteles sobre la contaminación lumínica, una observación astronómica, etc. Además de talleres sobre energía no contaminante, producciones y consumo responsable, vida subacuática, etc.

☞ *Programeak era guztietako jarduerak eskaintzen dauz, mungiarrek ingurumena jagon egin behar dala kontzientziazteko.*



Premio Euskelec: También se ha presentado el coche eléctrico, ganador de Euskelec, fabricado por el alumnado de Mecánica de Formación Profesional de Mungia BHI, con una demostración en Euskal Pizkundea etorbidea.

Mungian, Bitxikiak Alkarteko Bildumazaleen Feriaren XX. edizinoa egin da

Hogeigarren urteurreneko feria apirilean egin zan udal kiroldegian eta Legardako Eskolagunean. Aurton, garrantzi berezia emon jaken Bitxikiak Alkartekoen bildumei.



Mungiak “San Juan Gaua” ospatu eban hainbat ekintzaren bidez



Herri-kirolak, txokolatadea, suaren inguruko dantzea, zezensuzkoa eta musikea. Aiora Renteriaren kontzertua bere eskaini zan, eta Lorratz Taldearen zein Udal Musika Eskolako trikitilarien erromeriaz bere gozau ahal izan genduan. San Juan sua Udal Dantza Eskoleak piztu eban. Amaitzeko, zezensuzkoak urten eban.

Ederto pasau dogu geure jaietan!



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



ARGITARATZAILEA:
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16
komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus

ALE KOPURUA: 7.000 • LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

